

EREMU FUNTZIONALEKO UDALEI BILBO METROPOLITARREKO LPParen BERRIKUSPENA AURKEZTEKO BILKURA

Data: 2016-10-25

Lekua: Foru Agiritegia, Maria Diaz Haroko kalea 11, 48013
Bilbo

Iraupena: ordu eta erdi

Parte-hartzaileak

Nombre	Municipio	Cargo
Marcos de la Torre del Campo	Abanto-Zierbena	Arkitektoa
Naia Irastorza	Alonsotegi	Arkitekto Teknikoa
Asier Albizua Manrique	Arrigorriaga	Alkatea
Jose M ^e Olivares Ballesteros	Arrigorriaga	Arkitektoa
Amaia del Campo Berasategi	Barakaldo	Alkatea
Asier Odriozola Odriozola	Basauri	Arkitektoa
Pedro Rodríguez Toyos	Basauri	Bidebi-ko gerentea SDA Publikoa Hirigintzako
Maria Isabel Landa Gaubeka	Berango	Alkatea
Mikel Ocio Endaya	Bilbao	Hiri-Plangintzako zuzendaria

Nombre	Municipio	Cargo
Esther Apraiz	Derio	Alkatea
Alberto Santander	Derio	Arkitektoa
Miguel Angel Herrero	Etxebarri	Hirigintzako Zinegotzia
Santiago Espina	Etxebarri	Arkitektoa
Fernando Izagirre	Galdakao	Hirigintzako Zinegotzia
Kepa Iturriaga	Galdakao	Arkitektoa
Isabel Peral	Getxo	Hirigintzako Zinegotzia
Arantzazu Olabarrieta	Gorliz	Hirigintzako Zinegotzia
Amaia Albeniz	Larrabetzu	Arkitektoa
M ^a Carmen Urbieta González	Leioa	Alkatea
Iban	Leioa	Zinegotzia
	Leioa	Udal-Arkitektoa
Jon Ander Aurrekoetxea Artetxe	Lezama	Alkatea
Josu Andoni Begoña Fernández de Arroiabe	Loiu	Alkatea
	Loiu	Abokatua
Eduardo Briones	Muskiz	Hirigintzako Zinegotzia
Javi Garcia	Muskiz	Hirigintza-areako Zinegotzia
Oscar Salicio Rego	Ortuella	Hirigintzako Zinegotzia
Jesus Uriarte Arciniega	Ortuella	Arkitektoa
Aitor Ubiria Manzarraga	Plentzia	Arkitekto Teknikoa
Juan Pablo Aya Zulaika	Plentzia	Ahokulari juridikoa

Nombre	Municipio	Cargo
Mikel Torres	Portugalete	Alkatea
Jon Pesquera	Portugalete	Hirigintzako Zinegotzia
Aintzane Urkijo	Santurtzi	Alkatea
Jon Basabe	Santurtzi	Plangintza zerbitzuko Nagusia (Arkitektoa)
Iñigo Bonet Badiola	Sestao	Arkitektoa
Ion Andoni Larizgoitia Jauregi	Sondika	Arkitektoa
Carolina Alonso	Sopelana	Arkitektoa
Laura Varela	Sopelana	Aparejadore Teknikoa
	Trápaga	Arkitektoa
Jesus Cañada Merino	Ugao-Miraballes	Arkitektoa
Gabirel Zamalloa	Urduliz	Udaletxeko idazkaria.
Cristina Elorriaga	Urduliz	Arkitektoa
Ana Etxeandia	Zamudio	Arkitektoa
Jon Ajuria Fisura	Zaratamo	Alkatea
	Zierbena	Arkitektoa

DFaren ordezkariak

Izena	Kargua
Unai Remetería Maiz jn.	Bizkaiko diputatu nagusia
José Vicente Reyes Martín jn.	Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko diputatua
Ángel Anero Murga jn.	Lurraldearen Kohesioko zuzendari nagusia

Laguntzaile teknikoak

Izena	Enpresa
Aitor Sarria Bilbao jn.	Estudio K
Cristina López González and.	Basoinsa
Ana Izquierdo Lejardi and.	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental eta Paisaje Transversal

Aurkezpen instituzionala

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko diputatu **José Vicente Reyesek** eman dio hasiera bilkurari, eta eskerrak eman dizkie bertaratu diren guztiei. Azaldu duenez, Bilbo Metropolitarrako LPParen berrikuspen-prozesua abian jartzearekin bat, hasiera eman zaio zenbait alderdiri buruz hausnartzeko aldi bati; alderdi horiek zehaztuko dute, hain zuzen ere, nola egin aurre etorkizuneko erronkei.

Adierazi du udalen, gizarte-agentzien eta, oro har, herritarren laguntza izan dutela Lurralde Bizia prozesua abian jartzeko; eta, horrenbestez, proposamenak jasotzeko irekita daudela, inork halakorik egin nahi izango balu, parte-hartzea eraginkorragoa izan dadin.

Berrikuspen-lanen goiburuak, Lurralde Biziak, xede du udalen, gizarte-eragileen eta herritar guztien parte-hartzea sustatzea. Izan ere, Bizkaia gero eta aldakorragoa da, eta dinamismo handia dauka. Eutsi egin behar zaio dinamismo horri, eta sendotu ere egin behar da, eta horretarako lurraldea antolatzen duten tresnak ere etengabe eguneratu behar dira. Hori lortzeko behar-beharrezkoa da gu guztion lana.

Azaldu duenez, Bilbo Metropolitarrako LPPa izapidetu eta onetsi zen garaian, gizarte- eta hirigintza-errealitatea oraingoaren desberdina zen, eta, beraz, beharrezkoa da alderdi espezifiko batzuen berrikuspena egitea; esaterako, sare berdearen tratamendua, bide-azpiegiturak edo trenbide-azpiegiturak. Lurraldeko kultura-, kirol- eta aisialdi-ekipamenduen azterketa eguneratua ere egin behar da, baita udal-plangintzek egin ditzaketen bizitegi-lurzoruen eskaintzarena ere. Horrez gain, birdoitu egin behar dira jarduera ekonomikoen arloei dagozkien aurreikuspenak, bai sustapen publikora bideratuak bai lurzorua dimentsionatzekoak, egungo egoera eta epe ertainerako aurreikuspenak kontuan hartuta.

Bizkaiko diputatu nagusi **Unai Rementeriak** hitz egin du, eta nabarmendu du esku artean dugun erronka benetan handia eta garrantzitsua dela; izan ere, berrikuspen-prozesuak 35 udalerriri eta guztira milioi bat biztanleri eragiten die; alegia, Bizkaiko biztanleen % 80ri.

Adierazi du erronka garrantzitsua dela, datozen urteetan Bilbo Metropolitarrako bizitza, industria-jarduera edo aisialdia barne hartuko dituzten lekuak aurreikustean eta diseinatzean datzalako. Halaber, bertaratu egin die bizkaitarren hurrengo belaunaldietan pentsa dezatela berrikuspena lantzean; lurralde erakargarria, orekatua, bizitzeko eta lan egiteko duina, berdintasunean oinarritua eta bateratua utzi behar diegu.

Taldeen eta laneko planaren aurkezpena

Lurralde Kohesioko zuzendari nagusi **Ángel Anerok** azaldu du udalerrri bakoitzak errealitate desberdina duela eta horiek guztiak jaso beharko direla; alabaina, udalerrri guztiek badute ardatz nagusi bat: itsasadarra. Horren inguruan gertatzen da, hain zuzen, eremu funtzionaleko bizitzaren zatirik handiena; bertan dago industriaren zati handi bat, aisialdirako eremuak... Itsasadarraren antolamenduak hainbat eragin izango ditu, eta horiek guztiak landu beharko ditugu, Aldundiarekin batera lan egingo duten hiru laguntzaile teknikorekin batera.

Hona hemen lantaldeak:

LPParen idazketaz arduratuko den taldea.

Estudio K kooperatiba-sozietate bat da, eta diziplina anitzeko talde bat dauka. 1986an sortu zen eta esparru hauetan lan egiten du: lurralde-antolamendua eta hirigintza, ingeniari-tza zibila eta arkitektura.

Hauek dira lurralde-antolamenduaren esparruan egin dituen lan esanguratsuenak:

- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP). 1996.
- Debabarreneko Lurralde Plan Partziala (LPP). 2004.
- EAEko Etxebizitza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala (LPS). 2003.
- Mungiako LPPa. 2014.
- Bilbo Metropolitarrako LPParen Ingurune Fisikoaren eguneratzea. 2014.

Aitor Sarriak, enpresaren izenean, azaldu du plangintza bat dutela abiapuntu; hori ezin da ahaztu, baina, hein batean etorkizuna baldintzatuko badu ere, ez da oztopo izango beren helburua lortzeko: eremu metropolitarran "ingurumenarekiko konprometitua, inklusiboa, aktiboa, baliadun ondarearekin lotura duena, denon artean sortua eta kohesionatua" izan dadila lortzea. Ondoren, jarraitu beharreko lan-metodologia eta gertakari nagusiak azaldu ditu.

Ikus aurkezpena eranskinean.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaz arduratuko den taldea.

Basoinsa. 1985ean sortu zen eta esperientzia handia du honako arlo hauetan: baliabide naturalen plangintza eta kudeaketa, ingurumena eta horri lotutako jarduerak. Enpresa honek ere diziplina anitzeko talde handi bat du lanak egiteko.

Urte horietan guztietan, eta bereziki 2003an planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa abian jarri zenetik EAEn, Basoinsak ingurumen-ebaluazio estrategikoarekin lotura duten hainbat lanetan parte hartu du, nagusiki plangintzarekin zerikusia dutenetan.

Basoinsako Cristina Lópezek azaldu du zertan datzan ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozesua, eta adierazi du garrantzitsua dela ingurumenaren aldagaia LPParen berrikuspenean sartuta egon dadila hasiera-hasieratik. Egungo LPPak ez zuen ingurumen-ebaluazio estrategikorik izapidetu behar izan, 2003ko Dekretua indarrean sartu baino lehen onetsi zelako.

Beraz, fase honetan, LPPak hasiera emango dio ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapideei ekiteko eskaerari, hasierako agiri estrategikoaren eta planaren aurrerapenaren bidez.

Ikus aurkezpena eranskinean.

Parte-hartze publikoaz arduratuko den taldea.

Inguru eta **Paisaje Transversal** enpresek ABEE bat eratu dute herritarrek Bilbo Metropolitarrako LPParen Berrikuspenean izango duten parte-hartzea kudeatzeko.

Inguruk 25 urte daramatza gizarteak parte hartzeko aholkularitzako eta berrikuntzako proiektuak garatzen, parte-hartzea sustatuz, beharrak identifikatzeko, informazioa erkatzeko, komunikazio-kanal berriak sortzeko eta gobernamentua, erantzukidetasuna eta gardentasuna sustatzeko formula gisa.

Hauek dira enpresaren lan esanguratsuenak:

- Parte-hartzeko prozesua Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) idazketa- eta izapidetze-prozesuan.
- Parte-hartze publikoa Donostialdea-Bidasoa Behera Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak idazteko prozesuan.

Paisaje Transversal enpresak aholkularitza eskaintzen du honako arlo hauetan: hirigintza, lurraldearen antolamendua, herritarren parte-hartzea eta teknologiaren aplikazioa hirietan.

Ana Izquierdo Lejardik hitz egin du bi enpresa horien artean sortutako parte-hartzerako taldearen izenean, eta azaldu du parte-hartzea oso garrantzitsua dela, lurraldean bizi diren eta lan egiten duten pertsonen lurraldearen erabilerari buruz duten ideia jasotzeko tresna gisa. Halaber, parte-hartzeak etorkizuneko ikuspegi partekatu bat lortzeko eskaintzen dituen aukeren berri eman du. Horrez gain, parte-hartzeko prozesu osoaren eta laster egingo diren ekintzen berrikuspen bat egin du. Ekintza horien artean erakusketa ibiltaria nabarmendu du, eta hori gauzatu ahal izateko laguntza eskatu die udalerriei.

Ikus aurkezpena eranskinean.

Eskaerak eta galderak

Galderen txandari ekin aurretik, udalei epe motzera eragingo dieten zenbait alderdi gogorarazi dituzte:

- Bilkurak udalekin, azpieren araberako taldetan, azaroaren 28an eta 29an.
- Udalerrri bakoitzean erakusketa non jarriko den baieztatzea: udalerrri bakoitzak erakusketa non jarriko den adierazi beharko dio karpeta barneko fitxan adierazitako erreferentziako pertsonari.

Jarraian, bi pertsonak hitz egin dute:

- Batek galdetu du ea egokia den Eskuinaldea izenari eustea, edo beste izen bat bilatu beharko litzatekeen. Erantzun diote kontu hori aztertuko dutela azpieren horretako udalerriekin.

- Bilboko Udaleko Hirigintzako zuzendari Mikel Ociok azpimarratu du beharrezkoa dela herritarrei Lurralde Plan Partzialaren eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren arteko aldeak azaltzea, baita horietako bakoitzak berrikuspen honetan duen rola ere. Nabarmendu du bi dokumentuen berrikuspenak aldi berean egingo direla, eta horrek arazoak ekarriko dituela. Erantzun diote arrazoi duela eta, hain zuzen ere, zaila dela alde horiek erraz azaltzea adituak ez diren eragileei edo, oro har, herritarrei; are gehiago hiru plangintza desberdin aldi berean egiten badira. Honela azaldu ohi dute: **“LAGek ideia handiak lantzen dituzte; herrialdearen erabakiak bideratzen dituzten ildo eta kontzeptu orokorrak dira. LPpek ideia horiek erabaki espazial handi bihurtzen dituzte; horietan zehazten da, gutxi gorabehera, ideia horiek eskualde bakoitzean aplikatuta hartuko duten forma. Eta, azkenik, HAPOk erabaki horiek legezko betebeharrak eta karga bihurtzen dituzte udalerrira bakoitzean, oso zehaztuta eta lursailez lursail”**.